



**EUSKARA**  
**GOI MAILA - B2**  
**2010eko otsaila**  
**1. eredua**

<b>LEHENENGO SAIOA: IDATZIA</b>			<b>IRAUPENA: 180 minutu</b>	
Atalak	Portzentaiak	Puntuazioa	Gutxienekoa	Iraupena
A) Idatzizko ulermena	% 25	30	20	60'
B) Ahozko ulermena	% 25	30	20	40'
C) Idatzizko adierazpena	% 25	30	20	80'
<b>BIGARREN SAIOA: AHOZKOA</b>			<b>IRAUPENA: 20 minutu</b>	
D) Ahozko adierazpena	% 25	30	20	20'
<b>GUZTIRA</b>	<b>% 100</b>	<b>120</b>	<b>80</b>	<b>200'</b>

## Oharrak:

- Azterketariak mahai gainean eduki behar du **Nortasun Agiria** / DNla (edo dokumentu ofizial baliokidea).
- Ez ahaztu ERANTZUN-ORRIAN azterketariaren **datu guztiak** idaztea.
- Erantzun eta ariketa guztiak **ERANTZUN-ORRIAN** markatu eta idatzi behar dira.
- Azterketan idatzi behar duzun guztia **tinta beltzez edo urdinez** idatzi. Erredakzioak irakurgarria eta zalantzarik gabea izan behar du.
- Azterketa ekinaldi bakoitza amaitzean **orri guztiak** entregatu behar dira (galderak eta erantzun-orria).

## A atala: testu idatzien ulermena

### 1. ARIKETA

*Hurrengo testu zati bakoitzari buruz ulermen galdera batzuk dituzu. Hiru aukeren artean erabaki zein den testuaren esanahiarekin bat datorrena.*

**1. ariketa, A: 5 item (5 puntu)**

### **Donostiatik Kaliforniara**

*Xabier Euzkitze / Noticias de Gipuzkoa, 2009-11-09*

Kaliforniako Chino herrian bada trinkete eder bat. 1982ko apirilaren 17an, Mike Bidartek eskuz ziharduen, beste hiru lagunekin batera. Bat-batean, pilota batek ihes egin eta Ziprien Duhart adiskidea jo zuen burmuinetan. Ziplo erori zen lurrera. Berehala ohartu ziren kontu larria zela. Ileak zut, begiak zuri... han ez zen atarramentu onik. Anbulantzia noiz helduko zain ziren bitartean, Ziprienek piztuaitxo bat izan zuen eta, lagunak ohartzerako, zutitu egin zen. Mike hain arranguraturik ikusi zuenean, hura kontsolatu nahirik, kantari hasi zen eria. Kanta bukatzerako, gaizkitu eta bigarren aldiz erori zen. Ospitalera eraman zutenean, berehala ebakuntza egin beharra zegoela ikusi zuten. Buruan zuen odolbildua kendu zioten, baina koman geratu zen Ziprien. Medikuek ez zieten inongo esperantzarik ematen. Koman 27 egun zeramatzala, ospitaletik dei bat jaso zuen Mike-ek: «Piztu da zure laguna!» Ziztu batean joan zen haraino. Gelako atea ireki bezain laster, «agur, Mike!» esan eta berriz ere kantuz hasi zen Ziprien. Hainbat gauzatan berriz hutsetik hasi behar izan zuen, baina emeki-emeki ia guztiz osatu zen.

Orain 10 bat urte, istorio latz hau bertsotan jartzeko eskatu zidan Mike-ek. Hala egin nuen. Ziprienen etxean bazkaltzeko gonbita genuen. Bazkalondoan, bi ahotsetan kantatu genizkion bertsook. Kattalin emaztea, alabak, suhiak, gu geu... denok nigarrez amaitu genuen. Denok... Ziprienek izan ezik.

Lehengo asteartean musika emanaldi bat izan genuen Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean Joxan Goikoetxea musikariak eta biok. Emanaldia Internet bidez eskaintzen zutenez, Mike, Ziprien eta beste adiskide batzuek Kaliforniatik ikusi eta entzun ahal izan zuten, Ziprienen bertsoak barne. Teknologia hotza dela esan ohi dugu, baina batzuetan jendea hurbildu eta zirrara galantak sortzeko ere balio izaten du. Zorionez.

**0) “Ziplo erori zen lurrera”. Nola erori zen?**

- a) Bat-batean
- b) Ahoz behera
- c) Atzeraka

**1) Anbulantziaren zain zeudela...**

- a) Ziprien erabat sendatu eta tente jarri zen.
- b) bere onera etorri eta zutitza lortu zuen Ziprienek.
- c) bizkortu eta lagunen ezkutuan jaiki zen.

**2) Ziprien komatetik atera zenean Mike...**

- a) bizi-bizi joan zen ospitalera.
- b) txistuka joan zen ospitalera.
- c) kantari joan zen ospitalera.

**3) Nola geratu zen azkenean Ziprien?**

- a) Astiro bada ere, nahiko lehengoratu zela esan liteke.
- b) Lehen bezalaxe, hori bai, asko kostata.
- c) Gauza guztiak berriz ikasi behar izan zituen arren, nahiko ondo.

**4) Orain 10 bat urte...**

- a) Xabier Euzkitzek egindako bertsoak kantatu zituzten Mikek eta Xabierrek berak.
- b) etxeko guztiak negarrez utzi zituzten bi ahotsera kantatutako bertsoek.
- c) aginduta bezala, Mike eta Ziprienen arteko haserre latza kontatzen zuen istorioa idatzi zuen Euzkitzek bertsoan.

**5) Teknologia...**

- a) emozioa transmititzeko bide ere bada inoiz.
- b) jendea zorion betean jartzeko tresna da batzuetan.
- c) batzuetan jendea urruntzeko baina ez da.

**1. ariketa, B: 3 item (5 puntu)**

**Krisiari “esker” modu arduratsuagoan kontsumituko dugu  
beherapenetan**

*Eli Epelde, Zuzen bloga, 2009ko ekainak 27.*

Krisiaren eraginaren artean bada zer ospaturik, antza denez: datorren asteazkenean hasiko diren beherapenetan gutxiago gastatuko dugu, funtsezkoak ez diren produktuak baztertuz. Prebisioren arabera, iaz baino %4 gutxiago gastatuko da EAEn. Azken urteetako desfasearen ostean, krisiak baizik ezin izan du eragin kontsumo arduratsu baten aldeko jarrera.

**Saltzaileak, balantzari buelta ematea lortzeko, kontsumitzaileak zirikatu** ditu. Badirudi tentazioaren itzala gainean izango dugula datozen bi hilabeteotan. Euskal Herriko Kontsumitzaileen Erakundeak kontsumitzaileen eskubideen alde egiten du eta era berean kontsumo arduratsua egiteko aholkuak ematen ditu.

Aurten gutxiago gastatzearen arrazoiak, ordea, ez du erosleen kontzientziarioarekin zer ikusirik, antza, erosketa ahalmena gutxitzearekin baizik.

Espainiako gobernuak ere beherapen garaian erosteko argibideak ematen ditu. Kreditu txartelari gehiegizko astindua ez emateko eta erostera atera aurretik lista bat egiteko dio. Neurritz kontsumitzeko gomendioekin batera, ordea, krisitik ateratzeko kontsumitzen jarraitu behar dela esan zigun Zapaterok orain dela gutxi.

Kontsumitzeko kultura errotuta dago gure ohituretan eta ekonomiaren balaztadaren ostean berriz poltsikoak husten jarraitzeko moduan izango garela dirudi. Orduantxe argituko da, kontsumoa neurtzea ahalmen kontua edo jarrera kontua den.

**6) “Saltzaileak, balantzari buelta ematea lortzeko, kontsumitzaileak zirikatu** ditu”. Zer esan nahi du? (puntu bat)

- a) Saltzaileak kontsumitzaileak engainatuko ditu.
- b) Saltzaileak kontsumitzaileak tentatuko ditu.
- c) Saltzaileak kontsumitzaileak bereganatuko ditu.

**7) Zer aholku eman du Espainiako gobernuak? (puntu bat)**

- a) Kreditu txartela neurritz erabiltzeko eta erosketetara goazenean zer erosi pentsatuta joateko.
- b) Kreditu txartela edonori ez uzteko eta erostera joan aurretik zerrenda egiteko.
- c) Neurritz kontsumitzeko eta ahal dela, erosketak kreditu txartelarekin ordaintzeko.

**8) Zein da artikulua muina ondoen jasotzen duen erantzuna? (3 puntu)**

- a) Kontsumo arduratsua duenez kezka, kazetaria neurri batean poztu egiten da bizi dugun krisiagatik. Hala, kontsumitzaileen erakundeei eta gobernuei kasu eginda, gutxiago eta era arduratsuagoan kontsumituko dugula dio.
- b) Neurritz kontsumitzeko Euskal Herriko Kontsumitzaileen Erakundeak eta Espainiako gobernuak emandako aholkuak jasotzen ditu. Izan ere, ekonomiaren balaztadaren ostean laster izango gara berriz ere lehen bezala kontsumitzeko moduan.
- c) Merkealdietan iaz baino gutxiago gastatuko dugula dio. Kezka du kazetariak, hala ere, datozen urteetarako. Ez du garbi ikusten, aukera badugu behintzat, orain arteko kontsumismo itsua geratuko dugunik.

**2. ARIKETA**

*Hurrengo testuko hutsuneak betetzeko behean dituzun esaldi zatiak erabili behar dituzu. Esaldi zati bakoitza hutsune bati dagokio.*

**7 item (7 puntu)**

**Jainko bihurtu zen meteoritoa**

Nagore Irazustabarrena, Argia, 2009-12-06

Saaremaa uhartea (egungo Etonia), duela 3.000 urte.

30 eta 80 tona arteko meteorito bat, Lurraren grabitateak erakarrita, atmosferan sartu zen eta Europa erdialde eta (0) \_\_\_\_\_ **iparralde osoan ikusi zen suzko lorratza utzi zuen zeruan** \_\_\_\_\_. Berehala lehertu, zatitu eta zatietako batzuek Saaremaa jo zuten, hogei kilotoiko eztanda eraginez. Sei kilometroko erradioan basoak su hartu zuen eta (9) \_\_\_\_\_ eguzkia desagerrarazi zuen inguru haietan eta Ipar Itsasotik ikusi ahal izan zen hainbat egunetan. Krater nagusiak 22 metroko sakonera eta 110 metroko diametroa duen aintzira sortu zuen, Kaali aintzira.

Fenomenoa (10) \_\_\_\_\_ bizi zirenek ikusi ahal izan zuten eta, azalpen arrazionalik ezean, (11) \_\_\_\_\_. Hala, sua, burdina eta Lurra gupidarik gabe jotzen zuten mailuak Europa iparraldeko erlijioak eta legendak kutsatu zituzten handik aurrera.

Finlandian, (12) \_\_\_\_\_ eguzkia lapurtu zuen eta Ukko heroia eguzki berri bat sortzera bultzatu zuen. Baina eguzki berriak Lurra jo zuen, sute eta hondamendi izugarriak eraginez. Mende askotan Saaremaako kraterak eguzkiak Lurra jo zuen puntutzat hartu zuten bertakoek.

(13) \_\_\_\_\_ meteoritoaren arrastoak ikusi ditu zenbait adituk. Thor tximistaren jainkoa da, Mjöllnir burdinazko mailuaz Lurra gogor kolpatzen duena eta zerua suzko gurdian zeharkatzen duena, meteoritoak bezalaxe.

Mailua burdinazkoa izatea ere ez omen da kasualitatea, meteoritoaren arrastoetatik luzaroan burdina atera baitzuten, (14) \_\_\_\_\_ egiteko. Tokiak esanahi erlijioso berezia zuelako eta (15) \_\_\_\_\_ harresi biribila eraiki zuten zuloaren inguruan.

Egun, harresiaren arrasto gutxi batzuk baino ez dira geratzen. Finlandian jainko zaharrak gurtzeari utzi zioten aspaldi, eta Marvel etxeko super-heroi bihurtu da Thor; hori bai, komikietako pertsonaiak burdinazko mailua dauka oraindik eskuan.

Erabili beharreko esaldi zatiak.

- a) kezko hodei erraldoiak
- b) ehunka eta ehunka kilometroko erradioko eremuan
- c) jainkoei egotzi zieten gertakaria
- d) Louhi Pohjolako erregina maltzurak
- e) Thor jainkoaren legendan ere
- f) ezpatak, mailuak eta beste tresna batzuk
- g) burdinaren ustiapena babesteko
- h) iparralde osoan ikusi zen suzko lorratza utzi zuen zeruan**

3. ARIKETA

Cloze-testa: hurrengo testuetako hutsuneak betetzeko ematen diren hiru aukeretatik esan zein den egokiena.

13 item (13 puntu)

Bolognari begira

Carmen Valois, Argia 2009-11-29

Bolognako prozesuaren inguruan (0) hamaika hausnarketa egin daitezke. Izan ere, inplikaturiko aldeek gehien komeni zaien arloa plazaratuko dute: batzuek alde ideologikoari (16) \_\_\_\_\_ diote, beste batzuek helburu estrategikoei. Hainbatek onurak azpimarratuko dituzte, besteek ereduaren morrontzak eta itxurazko aldaketen faltsukeria.

Edonola ere, gaur egun unibertsitateak trantsizio (17) \_\_\_\_\_ daude, eta orain arteko ikasketak egokitu egin beharko dituzte 2010-2011 ikasturtean ezarriko diren gradu berriei begira. Jakina denez, honek hainbat aldaketa ekarriko ditu, (18) \_\_\_\_\_ titulazioen egitura berriaren ikuspegitik nola aplikatu beharreko irakaskuntza metodologian.

Eta hain zuzen niri, irakasle lanetan ibiltzea (19) \_\_\_\_\_ zaidanean, bada gai honetan atentzioa (20) \_\_\_\_\_ didan arlo bat, hots, kompetentzia. Bai, kontua da azken bolada honetan Europar Espaziora egokitzearen prozesuarekin lotuta, hitz hori maiz entzuten dela unibertsitatean. Badirudi horrek sortaraziko dituen aldaketek erabateko garrantzia hartuko dutela (21) \_\_\_\_\_, bai ikasleengan eta baita unibertsitatean ere. Zergatik? Ba ikasleen kompetentziak garatzea izango delako irakaskuntza-sistema berri honen (22) \_\_\_\_\_ funtsetako bat.

Nonbait, ikasleen kompetentziak garatzea eta egokitzea oso (23) \_\_\_\_\_ izango da: bai, egokitze prozesu horretan gizartearen beharrak kontuan hartuko direlako; bai, ikasleen parte-hartzea hezkuntza sistemaren muinean egongo delako, eta bai, azken finean, ikasleei autonomia aitortzea suposatzen duelako.

Baina bada (24) \_\_\_\_\_ faltan botatzen dudan gauza bat, hau da, irakasleen kompetentzien inguruko hausnarketa, ezen alderdi formalaz (25) \_\_\_\_\_, iruditzen zait irakasteko ez dela nahikoa izaten ezaguera arlo (26) \_\_\_\_\_ bat menperatzea,

0.

- a) hamabi
- b) hamaika
- c) hamalau

16.

- a) erreparatuko
- b) nabarituko
- c) zainduko

17.

- a) aldian
- b) gainean
- c) moduan

18.

- a) bai
- b) hala
- c) nola

19.

- a) egokitu
- b) atondu
- c) jabetu

20.

- a) jotzen
- b) ematen
- c) jartzen

21.

- a) geroaren zain
- b) gerora begira
- c) gerotik aurrera

22.

- a) ardatz
- b) biribil
- c) inguru

23.

- a) onbera
- b) ongilea
- c) onuragarria

24.

- a) hau guztian
- b) hemen guztian
- c) honetan guztian

ezta lan esparru batean esperientzia izatea ere. Irakasleak ikasleak kontuan hartzea eskatzen du, ikasketa prozesuan inplikatzeko, eta baita horren garrantziaz jabetzea ere.

Eta (27)\_\_\_\_\_, otu zait pentsatzea unibertsitate-ikasleen kompetentziak garatzeko, eduki teorikoak (28)\_\_\_\_\_, norberaren kompetentziak, balioak, eta jarrerak kontuan hartu beharko ditugula, horiek izango baitute ikasleengan benetako eragina eta proiektzioa. Horiek izango baitira, funtsean, Bolognari begiratzeko ezinbesteko baldintzak.

25.

- a) hara
- b) haraino
- c) haratago

26.

- a) tinko
- b) jakitun
- c) zehatz

27.

- a) honenbestez
- b) hainbestean
- c) hala nola

28.

- a) landu ezik
- b) landuz gero
- c) lantzeaz gain

## B atala: entzundakoaren ulermena

### 4. ARIKETA

Entzun audioa eta erabaki behean datozen esaldiak entzundakoaren arabera egia edo gezurra diren. Audioan esaten ez den guztia gezurtzat hartzen da.

Audioa BIRRITAN entzungo duzu.

**10 item (15 puntu)**

### albistegia

Euskadi Irratia (4')

0. Nafarroan aurrekontuak onartzeko bilkura egiten ari dira.	<b>a. egia</b>	b. gezurra
29. Alderdi Sozialistak aurrekontuen kontra bozkatukoa du.	a. egia	b. gezurra
30. IUko ordezkariak aurrekontuen bozketan parte hartu dute.	a. egia	b. gezurra
31. Mario Fernandezek PPkoen ordezkari bezala hitz egin du.	a. egia	b. gezurra
32. Filipinetan sumendiaren erupzioak lehen hildakoak utzi ditu.	a. egia	b. gezurra
33. Bi mendean ez da erupziorik izan eskualde horretan.	a. egia	b. gezurra
34. Peillen <i>Igela</i> aldizkariaren sortzaileetako bat da.	a. egia	b. gezurra
35. David Millar zigortua egon da bi urtean.	a. egia	b. gezurra
36. David Millar berriz lehiatuko da nazioartean.	a. egia	b. gezurra
37. Istripu bat izan da Urduña aldean.	a. egia	b. gezurra
38. Euria eta haize aldaketa iragarri dute.	a. egia	b. gezurra

5. ARIKETA

Ematen diren hiru aukeretatik erabaki zein datorren entzundakoarekin bat.  
Audioa BIRRITAN entzungo duzu.  
10 item (15 puntu)

**Luis eta Benjamin Gomez arkitektoak**

Jose Javier Fernandez. Euskadi Irratia (10')

0. Baionako erakusketa hori \_\_\_\_\_ . (adibidea)

- a) abenduan zabalduko da
- b) itxi egin dute dagoeneko
- c) **zabalik egongo da abenduan ere**

39. Luis eta Benjamin Gomez \_\_\_\_\_ aritu ziren lanean batez ere.

- a) Bigarren Mundu Gerraren ostean
- b) XX. mendeko bigarren erdian
- c) XX. mendeko lehen hamarkadetan

40. Bi arkitekto hauek diseinatzan zituzten etxe barruko apaintetak \_\_\_\_\_ .

- a) aberatsen esku uzten zituzten
- b) ere eurek egiten zituzten
- c) nori agindu ere beren esku izaten zuten

41. Beren diseinuak eta marrazkiak Baionako udalari \_\_\_\_\_ .

- a) eman dizkiote arkitekto bien ondorengoek
- b) eman dizkiote udaleko oinordekoek
- c) eman zizkioten Luisek eta Benjaminek

42. Erakusketan hutsune nabarmen bat dago, ez baitago \_\_\_\_\_ .

- a) eskulturarik
- b) maketarik
- c) planorik

43. Eurek diseinatutako etxeak zuzen-zuzenean ikus daitezke \_\_\_\_\_ .

- a) Baionan, kale artean
- b) erakusketan bertan
- c) museoak antolatu duen txangoan

44. Neoeuskalduna estiloa landu zuten bi arkitektoek, hau da, \_\_\_\_\_ .

- a) baserriak egin zituzten batez ere
- b) baserriaren estetikatik abiatzen dena
- c) etxeak eta hotelak egin zituzten baserrien materialekin

45. Estilo neoeuskalduna \_\_\_\_\_ .

- a) Hego Euskal Herrian ere ikus daiteke
- b) izenak dioen bezala, Euskal Herrian sortu zen
- c) Luis eta Benjaminek sortu zuten

46. Art deco estiloa ere landu zuten \_\_\_\_\_ .

- a) arrazionalismoa eta dekorazioa uztartzen duena, hain zuzen
- b) estilo neoeuskaldunarekin zerikusi handia zuelako
- c) modernismotik urrundu nahian

47. Estilo neoeuskaldunaren aldeko apustua \_\_\_\_\_ .

- a) Arrue anaiengandik jaso zuten
- b) badu zerikusia sasoiari bizi zen nazionalismoarekin
- c) eraiki zituzten kasinoetan ikusten da

48. Benjamin politikan eta antzerki munduan aritu zela \_\_\_\_\_ .

- a) aurkitu dute berriki
- b) erakusten du erakusketak
- c) katalogo batean ikus daiteke

## A eta B atalen erantzun orria

Izena:  Abizenak: NA zenbakia:  -Telefonoa: 

\* Erantzunak orrialde honetan markatu edo idatzi behar dituzu adibideetan bezala.

\* 0. galdera ADIBIDEA da.

**A atala: testu idatzien ulermena****1. ariketa**

01.	a	b	c
02.	a	b	c
03.	a	b	c
04.	a	b	c
05.	a	b	c

06.	a	b	c
07.	a	b	c
08.	a	b	c

**2. ariketa**

09.	a	b	c	d	e	f	g
10.	a	b	c	d	e	f	g
11.	a	b	c	d	e	f	g
12.	a	b	c	d	e	f	g
13.	a	b	c	d	e	f	g
14.	a	b	c	d	e	f	g
15.	a	b	c	d	e	f	g

**3. ariketa**

16.	a	b	c
17.	a	b	c
18.	a	b	c
19.	a	b	c
20.	a	b	c
21.	a	b	c
22.	a	b	c
23.	a	b	c
24.	a	b	c
25.	a	b	c
26.	a	b	c
27.	a	b	c
28.	a	b	c

\* 8. galderak hiru puntu balio ditu, gainerakoek puntu bat.

**B atala: entzundakoaren ulermena****4. ariketa**

29.	<input type="checkbox"/> a	<input type="checkbox"/> b
30.	<input type="checkbox"/> a	<input type="checkbox"/> b
31.	<input type="checkbox"/> a	<input type="checkbox"/> b
32.	<input type="checkbox"/> a	<input type="checkbox"/> b
33.	<input type="checkbox"/> a	<input type="checkbox"/> b
34.	<input type="checkbox"/> a	<input type="checkbox"/> b
35.	<input type="checkbox"/> a	<input type="checkbox"/> b
36.	<input type="checkbox"/> a	<input type="checkbox"/> b
37.	<input type="checkbox"/> a	<input type="checkbox"/> b
38.	<input type="checkbox"/> a	<input type="checkbox"/> b

**5. ariketa**

39.	<input type="checkbox"/> a	<input type="checkbox"/> b	<input type="checkbox"/> c
40.	<input type="checkbox"/> a	<input type="checkbox"/> b	<input type="checkbox"/> c
41.	<input type="checkbox"/> a	<input type="checkbox"/> b	<input type="checkbox"/> c
42.	<input type="checkbox"/> a	<input type="checkbox"/> b	<input type="checkbox"/> c
43.	<input type="checkbox"/> a	<input type="checkbox"/> b	<input type="checkbox"/> c
44.	<input type="checkbox"/> a	<input type="checkbox"/> b	<input type="checkbox"/> c
45.	<input type="checkbox"/> a	<input type="checkbox"/> b	<input type="checkbox"/> c
46.	<input type="checkbox"/> a	<input type="checkbox"/> b	<input type="checkbox"/> c
47.	<input type="checkbox"/> a	<input type="checkbox"/> b	<input type="checkbox"/> c
48.	<input type="checkbox"/> a	<input type="checkbox"/> b	<input type="checkbox"/> c

\* Galdera bakoitzak puntu eta erdi balio du.





